

## 763 Aitorpen-likidazioa. Joko jardueren gaineko zerga

### Fitxa interneten bistaratu

#### INFORMAZIO OROKORRA

##### Aurkezteko epea

Azken hiruhilekoa bukatu eta hurrengo 25 egun naturaletan aurkeztu behar da ereduak: urtarril, apiril, uztail eta urriaren 1etik 25era.

##### Helburua

Jokoari buruzko maiatzaren 27ko 13/2011 Legeak 48. artikulua 1. apartatuan jasotako joko jarduerak urtebeteko edo urte anitzeko izaeraz antolatzea edo egitea aitortzen da. Gipuzkoako Lurralde Historikoan joko modalitate bakoitzerako jokatutako diru kopuruaren arabera, Lurralde horri dagokion kuota ordainduko da.

Zozketen eta lehiaketen joko modalitateetan, zerga Gipuzkoa ordainduko dute baimena duten edo horrelako jokoak antolatu edo egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoek bakarrik, baldin eta zerga helbidea Gipuzkoan badute. Kasu horietan, portzentajea %100 izango da.

##### Nork tramitatzen du

- OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA
- Zerga Kudeaketako Zuzendariorde Nagusia
- Zeharkako Zerg., Eskualdaketan gaineko Zerg. eta Ingurumen Tributuak Kudeatzeko Zerbitzua

##### Nori zuzenduta

Baimen administratiboa duten edo Jokoari buruzko maiatzaren 27ko 13/2011 Legeak 48. artikulua 1. apartatuan jasotako joko jarduerak urtebeteko edo urte anitzeko izaeraz antolatu edo egiten dituzten pertsona fisikoak, juridikoak edo entitateak

##### Baldintzak

Jokoari buruzko maiatzaren 27ko 13/2011 legeak 48. artikulua 1. apartatuan jasotako urtebeteko edo urte anitzeko joko jarduerak ustiatzeko baimen administratiboa edukitzea edo baimenik gabe antolatzea edo egitea.

#### HASIERA ETA ESKAERA

##### Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

2018ko HIRUHILEKO 763 EREDUKO AUTOLIKIDAZIOA BETETZEKO JARRAIBIDEAK:

Estatuaren 2018.urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko 2018ko uztailaren 3ko 6/2018 Legeak, 2018ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin aldatu du joko arautzeko 2011ko maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen 48. artikuluko 7. apartatua.

Bakarrik 2018ko 3. hiru hilabeteko autolikidaziorako, [Zergabidean](#) dagoen 763 eredu erabiliko da eta 10, 15, 20, 25, 30, 35 laukietan 48.6 artikuluko b) letrako zerga oinarria jarriko da ( hau da, sarrera garbiak jarriko dira sarrera gordinen ordeztu)

[763 ereduak](#) (PDF)

##### Eskaera moduak

- » Internet
- » Presentziala

##### Internet bidezko eskaera

**Internetez:** 2017ko ekitalditik [ZergaBidea plataforma](#) erabiliz eta 2016 eta aurreko ekitaldietarako [Gipuzkoatarian](#) sartuz, bertan dagoen formularioa bete.

##### Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

- » Ziurtagiria eta B@KQ

##### Tramitazio elektronikorako oharrak

Ereduan zehaztutako kontuan helbideratuz egingo da ordainketa edo ordainketa pasabidea erabiliz, zeina aipatua baitator otsailaren 11ko 85/2009 Foru Aginduan.

##### Zuzeneko arretarako bulegoak

763 ereduak paperean aurkezteko aukera dago PDF betegarriaren bidez. Ereduak bete eta gero, zerga bilketan laguntzeko [baimenduak dauden entitate batean](#) aurkeztu behar da eta zorra ere bertan ordaindu.

## ARAUDIA

---

[13/2011 Legea](#), Jokoari buruzkoa.

[7/2014 Legea](#), apirilaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23eko 12/2002 Legea aldatzekoa.

[485/2018 FA](#), urriaren 15ekoa, joko jardueren gaineko zerga urtebeteko edo urte anitzeko jardueren kasuan autolikidatzeko erabili beharreko 763 eredua onartu, eta hura aurkezteko era, epea eta tokiak ezar tzen dituen (GAO, 2018/010/17) (PDF)